



Diputatuen Kontseiluak, 2020ko ekainaren 23an egindako batzarraldian, besteak beste, ondoko erabakia hartu du:

Txuri-Urdin Izotz Jauregia kirol-ekipamendu berezia da, Donostiako Anoeta pasealekuan dago, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasunekoa da. Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Departamentuari atxikita dago, beraz aipatutako departamentuak du bere administrazio eta kudeaketa-eskumena. Foru inbentarioan jabari publikoko ondasun gisa sartuta dago.

Zerbitzuaren araubide juridikoa Diputatuen Kontseiluaren 1999ko ekainaren 8ko erabakiaren bidez onartu zen, eta Txuri-Urdin Izotz Jauregia erabiltzeko Erregelamendu Orokorra 2000ko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Illo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu zuen Txuri-Urdin Izotz Jauregiaren jarduera, eta 2000. urteko urtarriletik aurrera zeharka kudeatu da azken 20 urteetan, administrazio-emakida bidez.

Gaur egun, dagoen emakida amaitzean, zerbitzu publiko horren kudeaketa kontratatzeko beste prozedura bati ekin behar zaio, zerbitzu emakida kontratu bidez, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 284. artikuluan eta hurrengoetan jasotako xedapenekin bat etorritik (SPKL).

Hala, SPKLren 284.2 eta 285.2 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, zerbitzu-emakidaren kontratazioari ekin baino lehen, alde batetik, haren araubide juridikoa ezarri behar da, eta berariaz adierazi behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen duela Txuri-Urdin Izotz Jauregiaren jarduera, eta, bestetik, bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa egin eta onartu behar duela.

Horretarako, Kiroletako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu teknikoek "Txuri-Urdin Izotz Jauregia Ustiatzeko Aurreproiektua" egin dute. Dokumentu horretan erabiltzeko araudia, erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak eta bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterlana jasotzen dira.

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 23 de junio de 2020, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

El Palacio del Hielo Txuri-Urdin es un equipamiento deportivo singular, sito en el Paseo de Anoeta de San Sebastián, cuya titularidad corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa, encontrándose adscrito al Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, quien ostenta la competencia de su administración y gestión. Se halla incluido en el inventario foral como bien de dominio público.

El régimen jurídico del servicio fue aprobado mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de fecha 8 de junio de 1999 y el Reglamento General de uso del Palacio de Hielo Txuri-Urdin fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 17 de enero de 2000.

En este sentido, la actividad del Palacio del Hielo Txuri-Urdin fue asumida por la Diputación Foral de Gipuzkoa como propia de la misma, y desde enero del año 2000 se ha venido gestionando indirectamente mediante concesión administrativa en los últimos 20 años.

Actualmente, a la finalización de la concesión existente, procede iniciar un nuevo procedimiento para la contratación de la gestión de dicho servicio público, mediante un contrato de concesión de servicios, de conformidad con las disposiciones contenidas en los artículos 284 y siguientes de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP).

Así de conformidad con lo dispuesto en el artículo 284.2 y 285.2 de la LCSP, antes de iniciar la contratación de una concesión de servicios, debe procederse por una parte al establecimiento de su régimen jurídico, declarando expresamente que la actividad del Palacio del Hielo Txuri-Urdin queda asumida por la Diputación Foral de Gipuzkoa como propia de la misma, y por otra, a la realización y aprobación del estudio de viabilidad económico-financiera.

Para ello, los servicios técnicos de la Dirección General de Deportes han elaborado el "Anteproyecto de Explotación del Palacio del Hielo Txuri-Urdin", documento en el que se contiene el reglamento de uso, las tarifas que deberán abonar las personas usuarias y el estudio de viabilidad económico-financiera de la concesión.



Planteatzen den emakida berriak bi urteko indarraldia izango du hasieran, eta beste hiru urtez luzatu ahal izango da, gehienez ere bost urtera iritsi arte.

Hasierako bi urteko eperako ezarritako lizitazio-aurrekontua 80.000,00 eurokoa da (BEZari lotuta ez dagoena), kontratuaren oreka ekonomikoa bermatzen duen foru-ekarpenari dagokiona, eta kontratuaren balio zenbatetsia, balizko luzapenak barne, 2.909.410,85 eurokoa da.

Bestalde, nahiz eta ustiategiaren hasierako bi urteetan Foru Aldundiak dituen diruzko betebeharreri aurre egiteko aurrekontua 80.000 eurokoa (BEZ gabe) den arren, kontuan hartuta traktu jarraituko eta etengabeko kontratua dela, soilik 2020ko urteari dagokion gastua baimenduko da, 13.867 euro, alegia, eta gainontzekoa datorren urteetan.

Hori dela eta, Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

Lehenengo.- Zeharka kudeatzea, zerbitzu emakida bidez, foru titulartasuneko zerbitzu publikoa den Txuri-Urdin Izotz Jauregia; jarduera hori Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du bere gain.

Bigarren.- Onartzea zerbitzu publiko horren oinarritzko araubidea, zeina jasota baitago "Txuri-Urdin Izotz Jauregia Ustiatzeko Aurreproiektua" izeneko dokumentuan, barne hartzen duena: erabiltzeko araudia, erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak eta bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa. Aipatutako dokumentua erabaki honen eranskin gisa jaso da.

Hirugarren.- Zerbitzu emakidari dagokion kontratazio espedientea onartzea, baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoaren agiriak biltzen dituen.

Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa izango da,

La nueva concesión que se plantea tendrá una vigencia inicial de dos años, prorrogables por tres años adicionales hasta alcanzar el máximo de cinco años.

El presupuesto de licitación establecido para el periodo inicial de dos años es de 80.000,00 € (no sujeto a IVA) que se corresponde con la aportación foral que garantiza el equilibrio económico del contrato, y el valor estimado del contrato, incluidas las eventuales prórrogas, asciende a 2.909.410,85 €.

Por otra parte, si bien el presupuesto para hacer frente a las obligaciones pecuniarias de la Diputación Foral en los dos años del período inicial de la explotación es de 80.000 euros (IVA exento), en atención a su consideración como contrato de tracto sucesivo de carácter permanente procede autorizar el gasto correspondiente a este año 2020 por importe de 13.867 euros y el resto en los próximos ejercicios.

En su virtud, y a propuesta del diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación,

ACUERDA

Primero.- Gestionar de manera indirecta, mediante contrato de concesión de servicios, el Palacio del Hielo Txuri-Urdin, servicio público de titularidad foral, quedando dicha actividad asumida por la Diputación Foral de Gipuzkoa como propia de la misma.

Segundo.- Aprobar el régimen jurídico básico de dicho servicio público, contenido en el "Anteproyecto de Explotación del Palacio del Hielo Txuri-Urdin" que comprende el reglamento de uso, las tarifas que deberán abonar las personas usuarias y el estudio de viabilidad económico-financiera de la concesión del servicio. El citado documento se acompaña como anexo al presente acuerdo.

Tercero.- Aprobar el correspondiente expediente de contratación para la concesión del servicio, que incluye los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas.

El contrato tendrá una vigencia inicial de dos años,



beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin. Kontratu honen hasierako iraupenerako lizitazio aurrekontua 80.000 eurokoa da eta kontratuaren zenbatetsitako balioa, balizko luzapenak barne hartzen dituen, 2.909.410,85 eurokoa.

Laugarren.- 2020ko ekitaldiari dagokion gastua onartzea, 13.867 eurokoa 1.0340.400.227.13.08.2020 kontu sailaren kargura.

Bosgarren.- kontratua esleitzeko esleipen irizpide anitzeko prozedura irekiari hasiera ematea, dagokion publikitatea aginduz.

Seigarren.- Ahalmena ematea Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuari kontratuaren esleipenaren inguruko erabakia hartzeko, lizitazioko tramiteak egin ondoren; hura formalizatzeko, luzatzeko, eta kontratua behar bezala gauzatzeko komeni dena egiteko, erabakitze eta ebazteko. Ahalmena ematen zaio, halaber, 2021 eta 2022 ekitaldiei dagozkien gastuak baimentzeko eta xedatzeko, eta, dagokionean, kontratua luzatzeko.

Erabaki hau behin betikoa da, eta administrazio bidea amaitzen du. Interesdunek erabaki honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita BI HILABETEKO EPEAN.

Hala ere partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO EPEAN. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2020ko ekainaren 29a.

Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Departamentuko Idazkari teknikoa. Ignacio Sainz Paredes

prorrogable por un plazo de tres años adicionales. El presupuesto de licitación establecido para el periodo inicial es de 80.000 € y el valor estimado del contrato, incluidas las eventuales prórrogas, asciende a 2.909.410,85 €.

Cuarto.- Autorizar el gasto correspondiente al ejercicio 2020, que asciende a la cantidad de 13.867 €, con cargo a la partida presupuestaria 1.0340.400.227.13.08.2020.

Quinto.- Disponer la apertura del procedimiento abierto con pluralidad de criterios a valorar, ordenando la publicidad correspondiente.

Sexto.- Facultar al diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes para decidir sobre la adjudicación del contrato, previos los trámites licitatorios oportunos, formalizar el mismo, prorrogarlo y adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarios para su correcta ejecución. Se le faculta, asimismo, para autorizar y disponer el gasto correspondiente a los ejercicios 2021 y 2022, así como, en su caso, a la prórroga del contrato.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estima pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, 29 de junio de 2020.

El secretario técnico del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes. Ignacio Sainz Paredes